



**Espediente zk./Nº Expediente:** 2021OZER0006

**Gaia/Asunto:** Exekuzio Proiektua idazteko eta Lanen Zuzendaritza gauzatzeko laguntza teknikoa kontratatzea: Area 23, Villas Viaducto Aparkaleku Publikoa / Asistencia técnica para la redacción del Proyecto de Ejecución y Dirección de Obra: Aparcamiento Público área 23

**Eskatzailea/Solicitante:** ERRENTERIAKO UDALA

**NAN(IFK)/DNI(NIF):** P2007200E

**Kokalekua/Emplazamiento:** ERRENTERIA

<b>KONTRATU MOTA:</b>	<b>ZERBITZUAK</b>
<b>PROZEDURA:</b>	<b>IREKIA</b>
<b>ARAU HARMONIZATUPEKO KONTRATUA</b>	<b>BAI</b> <input type="checkbox"/> <b>EZ</b> <input checked="" type="checkbox"/>
<b>ERREKURTSO BEREZIPEKO KONTRATUA</b>	<b>BAI</b> <input checked="" type="checkbox"/> <b>EZ</b> <input type="checkbox"/>
<b>LIZITAZIO ELEKTRONIKOA</b>	<b>BAI</b> <input checked="" type="checkbox"/>

<b>Tramitazioa</b>	<input checked="" type="checkbox"/>	<b>arrunta</b>	<input type="checkbox"/>	<b>presakoa</b>
<b>Tramitazio aurreratua</b>	<input type="checkbox"/>			

### **BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA**

#### **EZAUGARRIEN TAULA**

<b>1.- BOTERE ESLEITZAILEA</b>	
Administrazio kontratatzailea	ERRENTERIAKO UDALA
Kontratazio organoa	Alkatetza
Departamentu/zerbitzu kudeatzailea	Kontratazio eta Ondarea
Departamentu/zerbitzu kudeatzailearen zuzendaria	Herriko Plaza, z/g 20100 ERRENTERIA
Helbide elektronikoa	<a href="mailto:kontratazioa@errenteria.eus">kontratazioa@errenteria.eus</a>
Tramitazio-unitatea	Kontu - hartzailetza Saila

<b>2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA:</b>
<a href="https://errenteria.eus/zu/kontratatzailearen-profila/">https://errenteria.eus/zu/kontratatzailearen-profila/</a>

<b>3.- KONTRATUAREN XEDEA</b>
Exekuzio proiektua idazteko eta lanen Zuzendaritza gauzatzeko Laguntza Teknikoa: Area 23: Villas Viaducto Aparkaleku publikoa
KHA / CPV kodea(k): 71200000-0 Arkitektura-zerbitzuak eta horiei lotutako zerbitzuak
Loteka lizitzatzeko aukera: EZ



4.- LIZITAZIO AURREKONTUA		
Prezioa zehazteko sistema	Prezio unitarioak	<input type="checkbox"/>
	Kontratuaren parte bat oroharreko prezioan	<input type="checkbox"/>
	Kontratu osoa oroharreko	<input checked="" type="checkbox"/>
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZa barne)	123.165,90 €	
Lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren xehapena	101.790 + 21.375,90 € + 21% €	

5.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZa KANPOAN)
Zenbatekoa: 101.790 euro

6.- FINANTZAKETA	Portzentajea
Errenteriako Udala	%100

7.- URTEROKOAK		
EKITALDIA	AURREKONTU PARTIDAK	ZENBATEKOA
2021	A-428-2021	123.200€

8.- BETETZE/ IRAUTE EPEA
Epe osoa: 16 aste
Epe partzialak BAI
Baldintza Teknikoen 3. artikuluan ezarritakoak

9.- LUZAPENA
EZ

10.- ORDAINTZEKO ERA
<p><u>Fase 0. Azterketa geoteknikoa:</u> Prezioaren %5, Azterketa geoteknikoa egiten denean.</p> <p><u>Fase A. Proiektua idaztea:</u> prezioaren %10, Aurreproiektua Exekutatzeari egiten denean eta prezioaren %35, Proiektua Exekutatzeari egiten denean.</p> <p><u>Fase B. : Obra zuzendaritza:</u> prezioaren %47. Obra amaierako ziurtagiria egindakoan ordainduko da, Fase honen barruko lan guztiak eginda, <i>Obren egoeraren gaineko txostena, berme epea pasatuta</i> egin izan ezik.</p>



Kopuru honi dagokion ordainketa aurreratu ahal izango da amaierako kitapenaren konturako ordainketak eginda, emandako Exekuzio Materialaren Aurrekontuaren kopuruaren gainean data hori arte egindako ziurtagiriaren arabera.

- Kontratuaren zenbatekoaren% 3 ordainduko da *obren egoerari buruzko txostena* egin ondoren, berme-epea amaitu aurretik.

**Udalak obra ez egitea erabakitzen badu, esleipendunak ez du eskubiderik izango kobratzeko B fasea: Obra zuzendaritzaren ordainsariak izeneko faseari dagokiona. Edonola ere, kontratuaren B fasea ez bada hasten kontratua formalizatzen denetik kontaktzen hasita 5 urteko epean, bi aldeek eskatu ahal izango dute kontratua suntsiarazteko.**

#### 11.- BERME EPEA

Ez da ezartzen.

#### 12.- HARRERA ETA ENTREGA/BETETZE LEKUA

Udal zerbitzu teknikoek adierazitakoa.

#### 13.- ALDAERAK ONARTZEA

EZ

#### 14.- PREZIO BERRIKUSPENA

EZ

#### 15. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

**1. ZKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: “[DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA](#)” Plegu honetako 19. atalean aipatutakoa.**

Kasu guztietan hurrengo dokumentua bete eta aurkeztu beharko dira:

- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)



**2. ZKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: “BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” Ondorengo adjudikazio irizpideei buruzkoa:**

a) PROPOSAMEN TEKNIKOA:

- Egokitasun funtzionala.
- Ingurunean integratzea
- Arrazionaltasunez eraikitzea

b) GIZA-BALIABIDEAK

**3. ZKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” (IX. Eranskina) Ondorengo adjudikazio irizpideei buruzkoa :**

HOBEKUNTZA EKONOMIKOA (IX ERANSKINA)

**16.- BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA**

**1) BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK (SPKLren 65. artikulua)**

Bidezkoa da: EZ

**2) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA**

Lizitatzaillearen urteko negozio – bolumenarekin egiaztatuko da , horrek amaitutako azken hiru urteetako negozio – bolumen handieneko urtean gutxieneko zenbatekoa 101.790 € koa (BEZ kanpo) izango da

Lizitatzaillearen edo hautagaiaren urteko negozio – bolumena egiaztatuko da urteko kontuen bidez. Enpresaria Merkataritza Erregistroan inskribatuta badago, kontuak onartutakoan erregistro horretan utziko dira, eta bestela, dagokion Erregistro ofizialean.

Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresari indibidualek urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute inbentario-liburuen eta urteko kontuen bidez, betiere Merkataritza Erregistroak legeztatu baditu.



### 3) KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

Azken hiru urteetan emandako zerbitzu nagusien zerrenda, zenbatekoa, data eta hartzailea publikoa edo pribatua dena adierazita. Hornidurak egiaztatuko dira organo eskudunak eman edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez, sektore publikoko erakunde baterako bada, eta subjektu pribatu baterako bada, horren ziurtagiria baten bidez edo, horrelakorik ezean, enpresariaren adierazpenaren bidez. Kasu horretan, ziurtagiri horiek zuzenean kontratazio-organuari bidaliko dizkio zuzenean agintaritza eskudunak.

Kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bereko edo antzeko zerbitzuetarako gutxieneko baldintza izango da jardun handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa 75.000 € (BEZ kanpo) ala handiagoa izatea. Enpresariak burututako zerbitzuak kontratuaren xede direnekin parekatzeko irizpidea izango da azpitalde berekoak izatea, baldin eta kontratua araudi honetan ezarritako azpitalderen batekoa bada, eta, ez bada hala, CPV kodeen lehen hiru digituak berdinak izatea.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen inguruko jardun onaren ziurtagiriak sektore publikoko erakunde batentzat badira, zuzenean kontratazio- organoari helarazi ahal izango dio zerbitzua kontratatu duen erakundeak.

### 4) INGURUMEN KUDEAKETARAKO ETA KALITATEAREN KUDEAKETARAKO ARAUAK BETETZEN DIRELAKO EGIAZTAPENA

EZ

### 17.- BITARTEKOAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA

BAI EZ

### 18.- AZPIKONTRATATZEA

- Azpikontratatu ezin diren eginkizun kritikoak

EZ

### 19.- BERMEAK

BEHIN BETIKOA

BAI, Zenbatekoa: Adjudikazio prezioaren %5a (BEZ kanpo)

### 20.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

#### 1) BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

Adierazi ezazu, hala badagokio, ebaluazioa nori dagokion:

- Aditu batzordea.  
 Organismo tekniko espezializatua: (identifikatu).



**Gutxienez puntuazioaren %50eko atalasea ezartzen da hautaketa-prozesuan jarraitzeko irizpide kualitatiboetan.**

**1.- PROPOSAMEN TEKNIKOA. 52 PUNTU.**

**1.a.- Egokitasun funtzionala. 20 puntu:** Helburu-programarekiko duen egokitasun maila baloratuko da, baita Baldintza Teknikoen Agiriaren oinarrietan ezarritako eskakizun funtzionalekiko ere.

**1.b.- Ingurunean integratzea. 18 puntu:** Baloratuko da ingurunean ahalik eta eragin txikiena izatea, bai aparkalekuaren eraikinean, bai sarbideetako elementuetan (ibilgailuena eta oinezkoena), airea berriztatzeko sisteman, eta beste instalazio batzuetan. Baloratuko da egiturako elementuei eta itxiturei emandako konponbidea, bai eta itxura formala eta konposizioa ere.

**1.c.- Arrazionaltasunez eraikitzea. 14 puntu:** Kontuan hartuko da lortutako irtenbide funtzional eta formalari dagokion eraikitze xumetasun eta koherentzia maila.

Kontuan hartuko dira, ondorengo mantenimendu baldintza hobeak ekarriko dituen proposamenaren exekuzioaren aurrezpena eta eraikuntza-irtenbidea. Hori dela eta, zehaztu egin beharko dira egiturazko eta eraikuntzako irtenbideak, obren aurrekontu estimatua ekarriz, kapituluka banakatuta.

Eskematikoki definituko da proposatzen den konponbide arkitektonikoa (oinplano mota, sekzioak, altxaerak eta abar), oinarrizko modu batean aurreratuta materialak, eraikuntza-irtenbideak eta instalazioak eta, hala badagokio, proposamena ulertze aldera, lizitatuak bereziki esanguratsutzat jotzen dituzten eskemak eta xehetasunak. Aurkeztutako irtenbidea egiaztatu beharko da.

Azalera-taula bat ere erantsi beharko da eta bertan adieraziko dira aparkaleku-plazen azalera erabilgarriak, zirkulazioenak, eta abarrenak.

**2.- GIZA-BALIABIDEAK. 8 PUNTU.**

Zehaztu beharko da zer giza baliabidek parte hartuko duten. Teknikari zehatzak eta haien dedikazio maila adierazi beharko dira, lanetan parte hartuko duten pertsonen izenak jasota. Hori dela-eta, helburu horrekin, teknikari horien zerrenda zehatza aurkeztu beharko da, titulazioa eta guzti, baita haiek sinatutako agiri bat ere, lanak egiteko konpromisoa bereganatzen dutela adieraziz.

**2) FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK**

**1.- HOBETUNTZA EKONOMIKOA. 40 PUNTU**

Onartutako eskaintzen batezbestekoarekiko (lizitazio motarako adierazitako baldintzetan) %10eko hobekuntza edo gehiago suposatzen duen eskaintza onenari (hipotetikoa edo erreala) gehienezko puntuazioa emanez egingo da balorazioa. Gainerako eskaintzen puntuazioa jaisten joango da proposamen ekonomikoa gorantz doan neurrian, jarraian deskribatuko den formula matematikoaren arabera, eta zero puntu izatera helduko da eskaintzak lizitazio-proposamena berdintzen badu.



$$P_n = P_{max} \times (TL - V_n) / (TL - V_{min})$$

bertan,

$P_n$  eskaintzagarik lortutako puntuazioa da.

$P_{max}$  esleituko den puntuaziorik altuena da, irizpide honen arabera.

$TL$  lizitazio-mota da

$V_n$  Irizpide honetarako ebaluatu beharreko eskaintzaren balioa da,

=====

**\* Parametroak, balio anormalak edo neurrigabeak dituen eskaintza bat kontuan hartzeko**

Hurrengo suposizioetan aurkitzen diren proposamenak eskaintza proportziotik kanpo edo ez ohikoa hartuko dira:

- Lizitatuzaile bakarrak parte hartuz, portzentajezko 25 unitate baino gehiagotan lizitazio-proposamenetik beherakoa denean.

- Bi lizitatuzailek parte hartzen dutenean, bestea baino portzentajezko 20 unitate merkeagoa dena.

- Beste kasu guztietarako goiko beherapena onartutako eskaintzetako batezbesteko % 10etan ekartzen duten proposamenak. Zirkunstantzia hau ez da bazterte-arrazoia izango baldin eta lizitatuzaileak aski justifikatzen badu bere proposamena bideragarria dela (kalkuluen ekarpenaren eta egoki estimatzen diren argudioen bitartez). Puntuak gainerako eskaintzei emango zaizkie proportzionalki. Proposamenaren bideragarritasuna akreditaturik ez geratzearen kasuan, hau ez da kontuan hartuko eta formula ez da aldatuko.

Eskaintza hori egitea ez da prozesutik kanpo uzteko arrazoi izango, lizitatuzaileak behar bezala justifikatzen badu bere proposamena bideragarria dela (egoki deritzen kalkuluak eta argudioak aurkeztuta), eta suposatuko du balorazio-formula egokitzea gutxieneko parametro tipo berrira (gehieneko puntuazioa).

**\* Irizpide espezifikoak, berdinketak desegiteko:** Ez dira ezartzen.

**AURKEZTEN DIREN TESTU IDATZIAN DERRIGORREAN BETETZEKO IRIZPIDEAK (GRAFIKOAK, ARGAZKIAK, DIAGRAMAK ETA ABAR ALDE BATERA UTZITA).**

Dokumentuen edukia librea izango da, hots, lehiatzaile bakoitzak uste duen erakoa. PDF formatuan aurkeztuko da.

## 21.- BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Agiri honen 38.2 klausulan aurreikusitako exekuzio-baldintza bereziak.



**22.- AURREIKUSITAKO KONTRATU ALDAKETAK**

EZ

**23.- KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK**

Kontratu honi ezar dakizkikeen funtsezko betebeharrak SPKLn eta baldintza-agiriko klausuletan aurreikusitakoak dira.

Funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira SPKL-ren 211. artikuluko 1. ataleko f) letran adierazitako ondorioetarako:

- Kontratuaren xede den prestazioaren ezaugarriak betetzea edo gordetzea, eta, bereziki, balio-judizioaren bidez ebalua daitezkeen esleipen-irizpideak definitzeko kontuan hartu direnak.

**24.- ZEHAPENAK**

Baldintza-agiriaren 42.klausulan aurreikusitakoak.

**25.- ASEGURUAK**

BAI. Erantzukizun Zibila.

**26.- LAN HARREMAN JAKIN BATZUETAKO SUBROGAZIOA**

EZ

**27.- LIZITATZAILEAK KONPENTSATZEKO ZENBATEKOA**

EZ

**28.- PRESTAKETA LANEI DAGOZKIEN KONTURAKO ORDAINKETAK**

EZ

**29.- BESTE ZEHAZTAPEN OSAGARRI BATZUK**

EZ





### 30.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

SPKL-an aurreikusitako suntsiarazteko kausez gain, Udalak obra ez egitea erabakitzen badu, esleipendunak ez du eskubiderik izango kobratzeko B fasea: Obra zuzendaritzaren ordainsariak izeneko faseari dagokiona. Edonola ere, kontratuaren B fasea ez bada hasten kontratua formalizatzen denetik kontaktzen hasita 5 urteko epean, bi aldeek eskatu ahal izango dute kontratua suntsiarazteko.

### 31.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahai Iraunkorra (GAO 126.zkia 2019ko uztailaren 3koa, GAO 133.zkia 2019ko uztailaren 12koa eta GAO 89.zkia 2020ko maiatzaren 14koa).

Errenteria, 2021ko otsailaren 24a

KONTRATAZIOA ETA ONDAREKO ARDURADUNA,

Tomás Martín Azpillaga.

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Karatula aparcamiento